BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA

URTEKO MEMORIA

2025-2026 IKASTURTEA

AURKIBIDEA

1. SARRERA 2

1.1. HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN EKARPENAK 2

2. HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN EBALUAZIOA 3

2.1. URTEKO PLANEAN PROPOSATUTAKO HELBURUEN LORPEN MAILA 3

2.2. IKASLERIAREN IRAKASKUNTZA-PROZESUEN EBALUAZIOA 4

2.2.1. Musika eta Dantza hezkuntza 4

2.2.2. Ongizate sozial, fisiko eta emozionalera bideratutako eskaintza 4

2.2.3. Aniztasun planaren ebaluazioa 5

3. IRAKASKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMAREN EBALUAZIOA 5

3.1. ESKOLAKO KOMUNIKAZIO PLANAREN EBALUAZIOA 5

3.2. IRAKASKUNTZA JARDUERA OSAGARRIEN PROGRAMAREN EBALUAZIOA 6

1. SARRERA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren 2025-26 ikasturteko Urteko Memoria honek, besteak beste, eskolaren funtzionamendua eta jarduera nagusiak laburbiltzen ditu, eta, hala dagokionean, hobetzeko proposamenak jasotzen ditu. Ikasturteko alderdi nabarmenenak aipatu beharko bagenitu, hauek lirateke:

a) Eskolaren ekimenez, KANTULAB proiektua jarri da martxan, 2025-26 Urteko Planeko 5. helburuari lotuta (Herriko Iraurgi Abesbatzaren beharrak asetzen saiatzea). Lau saio ireki antolatu dira, guztiz doakoak, 14 eta 26 urte bitarteko gazteentzat.

   Ekimen honen helburu nagusia gazteei abestia modu partekatuan lantzeko aukera eskaintzea da, ahotsaren garapena sustatuz eta musikaz gozatzeko espazio atsegin eta motibagarria sortuz. Eta, horrekin batera, Bizkargi eta Iraurgi abesbatzen arteko zubia eraikitzen joatea, Iraurgi abesbatzako etorkizuneko kideak erakartzeko bidea irekiz.

b) Aurten TALDEZ TALDE ekimenaren 25. urteurrena ospatu dugu. Ekimena urtez urte antolatu da Azkoitiko Udalaren laguntzarekin eta Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako ikasleen, Herriko Bandaren eta Iraurgi Abesbatzaren parte-hartzearekin.

   Orain arte ekimena hiru igande ezberdinetan antolatu bada ere, oraingo honetan, 25. urteurrena dela eta, emanaldi bakarra antolatu da Baztartxo antzokian, talde guztien partaidetza eta laguntzarekin.

1.1. HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN EKARPENAK

Taula honetan, memoria antolatzearekin, lantzearekin, idaztearekin, onartzearekin eta zabaltzearekin lotutako zereginak jasotzen dira, bai eta horietan parte hartu duten pertsonak eta taldeak ere:

ERAGILEAK	ZEREGINAK
ZUZENDARIA	- Informazioa bildu eta horretaz baliatu. - Eskolaren Urteko Planari dagokionez, zuzendaritza taldeari helburuak ebaluatu. - Ekarpen guztiak kontuan hartuta, hurrengo ikasturterako Urteko Planerako hobekuntzak proposatu. - Behin betiko memoria idatzi eta horren berri Zuzendaritza Batzordeari eman. - Memoria hezkuntza komunitatearen eta administrazioaren eskura jarri.
KLAUSTROA	- Eskolaren Urteko Planari dagokionez, eurei dagozkien helburuak ebaluatu eta, hala badagokio, hobekuntzak proposatu.
ZUZENDARITZA BATZORDEA	- Zuzendariak aurkeztutako Memoriako egiteko lanetan parte hartu, datu adierazgarriak aztertu eta hobekuntzak proposatu.
BATZAR NAGUSIA	- Memoria onartu.

2. HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN EBALUAZIOA

2.1. URTEKO PLANEAN PROPOSATUTAKO HELBURUEN LORPEN MAILA

HELBURUA	BETE DA		
	BAI	EZ	HOBEKUNTZA APROPOSAMENA
1. Eskolan ematen diren instrumentuen aurkezpen-saioak antolatzen jarraitzea, batez ere instrumentu minoritarioetan zentratuz.	X		Ez dago
2. Aniztasun funtzionala duten ikasleen hezkuntza-inklusioa ahalbidetzea, irakasteko eta ikasteko prozesuan beharrezko egokitzapenak eginez.	X		Ez dago
3. Taldez-Talde egitasmoaren XXV. edizioa ospatzea, ekitaldi berezi bat antolatuz.	X		Ez dago
4. Ikastetxeko hainbat instalazioren funtzionaltasuna zein erabilgarritasuna hobetzea eta hainbat baliabide material sailkatzeko eta gordetzeko artxibo fisiko bat sortzea.	X		Fonoteka gela egokitzen jarraitzea
5. Herriko Iraurgi Abesbatzak dituen beharrak asetzen saiatzea, elkarlan bat prestatuz.		X	*"KantuLab"* proiektua berrantolatzea
6. Historian egon diren eta gaur egun dauden emakume musikariak ezagutaraztea.	X		Ez dago
7. Eskolaren webgunean eta sare sozialetan ikus-entzunezko material bera argitaratzea.	X		Ez dago
8. Eskolako erabiltzaileek Eskolaren funtzionamenduari eta arauei buruz webgunean argitaratutako informazioa ezagutzen dutela bermatzea.	X		Ez dago
9. Eskolaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko beharrezko urratsak aztertzen jarraitzea.	X		
10. Eskolako ebakuazio simulazioa egitea.	X		Larrialdi-irteerak birplanteatzea

2.2. IKASLERIAREN IRAKASKUNTZA-PROZESUEN EBALUAZIOA

2.2.1. Musika eta Dantza hezkuntza

Musika eta Dantza Eskolako ikasleen emaitza akademikoak ebaluatzeko ezarritako irizpidea ikasleen promozio-indizea da, eta lorpen-irizpidea da promozionatutako ikasleen kopurua gutxienez % 75ekoa izatea.

Beheko taulan jasotako datuen arabera, maila guztietan, 3. mailako lehen zikloan izan ezik, mailaz igo diren ikasleen ehunekoak nabarmen gainditzen du aurreko paragrafoan aipatutako onarpen-irizpidea. Beraz, 2025-26 ikasturteko emaitzak oso onak direla ondoriozta daiteke.

MAILA	IKASLEAK GUZTIRA	PROMOZIONATUAK
1. Maila	118	%94,92
2. Maila:	**382**	
Hastapena	42	%97,62
MH/instrumentua/dantza 2.1 - 2.2	137	%95,62
MH/instrumentua/dantza 2.3 - 2.4	137	%98,54
MH/instrumentua/dantza 2.5 - 2.6	66	%98,48
3. Maila:	**58**	
Harmonia/instrumentua/dantza 3.1 - 3.2	24	%66,67
Instrumentua/dantza 3.3 – 3.4	24	%87,5
Instrumentua/dantza 3.5 – 3.6	10	%80
OINARRIZKO DIPLOMA	**9**	**%100**

2.2.2. Ongizate sozial, fisiko eta emozionalera bideratutako hezkuntza eskaintzaren ebaluazioa

Eskolak eskaintzen dituen tailer horien izaera eta erabiltzaileen profila kontuan hartuta, horiek ebaluatzeko ezarritako irizpidea tailer horien erabiltzaileen gogobetetze-maila da. Inplikatutako arduradunek dagokion balorazioa egin dute, eta emaitza oso ona izan da. Nabarmentzekoa da, halaber, tailerretara joan diren pertsonen kopurua handia izan dela, zehazki, 68 pertsona, beheko taulan jasotzen den bezala.

TAILERRA	TALDEA	KOPURUA	HELBURUAK
Helduen dantza taldeak	Dantza taldea	24	- Antsietatea murriztea - Autoestimua areagotzea - Interakzio soziala sustatzea
Helduen musika tailerrak	San Jose Egoitzako egoiliarrak	8	
	"Bizipoza" taldea	45	
	Helduen musika tailerra	10	

2.2.3. Aniztasun planaren ebaluazioa

Ikasturte honetan, aniztasun duten 3 ikasle izan ditugu eta beraien ezaugarriak kontuan hartuta, beharrezko egokitzapenak egin zaizkie eta, irakasleek egindako ebaluazioaren arabera, 3 ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan izan duten aurrerapena egokia izan da.

3. IRAKASKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMAREN EBALUAZIOA

3.1. ESKOLAKO KOMUNIKAZIO PLANAREN EBALUAZIOA

BALIABIDEA	NOIZ	HELBURUA	EBALUAZIOA		
			EGIN DA		hobekuntza proposamena
			bai	ez	
WEBGUNEA	Ikasturte osoan	Erabiltzaileak informatzea, bestek beste: - Antolamendua - Funtzionamendua - Araudiak - Egutegia - Taldeko ordutegiak - Kuotak - Hezkuntza eskaintza - Tramiteak: matrikula, baja ematea, erreklamazioak. - Unean uneko berriak	X		Ez dago
SARE SOZIALAK	Ikasturte osoan	- Ekitaldien berri ematea - Egindako emanaldiak erakustea - Eskolan egiten diren entseguak aurkeztea - Ikasleekin klaseetan landutakoa erakustea	X		Ez dago
INIKA	Ikasturte osoan	- Ikasleen noten informeak helaraztea	X		Ez dago
		- Jakinarazpenak helaraztea	X		
IRAGARKI TAULA	Matrikulazio garaian	- Matrikulatzeko epeak - Taldeen ordutegiak	X		Ez dago
	Ikasturte osoan	- Berriak	X		
BILERAK	Ebaluazio bakoitzean	- Ikasleen gurasoei eta ikasle helduei ikaskuntza prozesuaren berri ematea	X		Ez dago
	Martxoa	- “Aula Virtual de Música” metodologia berria azaltzea	X		Ez dago
	Ekainean	- Ikasleen gurasoekin eta ikasle helduekin instrumentu klaseen ordutegiak adostea	X		Ez dago
INSTRUMENTUAK AURKEZTEKO SAIOAK	Martxoan	- Eskolan irakasten diren instrumentu ezberdinak ezagutaraztea eta probatzea	X		Ez dago

3.2. IRAKASKUNTZA JARDUERA OSAGARRIEN PROGRAMAREN EBALUAZIOA

JARDUERA OSAGARRIAK DATA	HELBURUA	ARDURADUNA/K	PARTE HARTZAILEAK	EBALUAZIOA		
				DATORREN IKASTURTEAN		HOBEKUNTZA PROPOSAMENA
				BAI	EZ (zergatia)	
Instrumentu desberdinetako ikasleen entzunaldiak Ikasturtean zehar	Ikasleak agertokira ohitzea, publikoaren aurrean interpretazio-sentsazioak izatea eta ikasitakoa erakustea	Instrumentu irakasleak	Entzunaldiari dagokion instrumentu ikasleak	X		Ez dago
Portugaleteko dantza txapelketa Irailak 28	Dantza txapelketan parte hartzea	Dantza irakaslea	Dantzariak		Ez da aurreikusten	Ez dago
Azpeitiko Trikigiro Topaketa Urriak 24	Trikiti topaketan parte hartzea	Pandero eta trikitixa irakasleak	Trikitilariak eta Pandero-joleak		Ez da aurreikusten	Ez dago
“Musikalean” kalejira Azaroak 11	Kalejiran parte hartzea	Pandero, txistu, trikitixa eta dantzako irakasleak	Trikitilariak, pandero-joleak, dantzariak	X		Ez dago
Santa Zeziliaren omenez emanaldia Azaroak 21	Musikarien zaindariaren eguna ospatzea	Hainbat irakasle	instrumentu ikasleak Tailerretako ikasleak Dantzariak	X		Ez dago
San Andres jaietan kalejira Azaroak 23	Kalejiran parte hartzea	Trikitixa, pandero eta dantzako irakasleak	Trikitilariak, pandero joleak eta dantzariak	X		Ez dago
Gabonetako kontzertua Abenduak 19	Gabon jaiak ospatzeko ekitaldietan parte hartzea	Hainbat irakasle	Abeslari, instrumentu joleak eta dantzariak	X		Emanaldia Kontzejupetik azoka plazara pasatzea
Errege bezperako kabalgata Urtarrilak 5	Errege eguna ospatzeko antolatzen den kabalgatan parte hartzea, bi bandak elkarlanean	Bandako zuzendaria	Gazteen Banda eta Herriko Banda	X		Ez dago

	arituz					
Inauterietako kalejira Otsailak 14	Inauterietako festetako ekitaldietan parte hartzea	Bandako zuzendaria	Gazteen Banda eta Herriko Banda	X		Ez dago
XXV. “Taldez-Talde” ekimena Martxoak 15	Eskolako ikasleak eta taldeak herriko taldeekin batera elkarlanean aritzea	Hainbat irakasle	Dantzariak, trikitilariak eta pandero joleak, Gazteen eta Herriko bandak, Bizkargi eta Iraurgi abesbatzak	X		Igande bakar baten egitea
Dantzarien udaberriko kalejira Apirilean	Udaberriko kalejiran parte hartzea	Dantza, txistu, pandero eta trikitixa irakasleak	Dantzariak, trikitilariak, pandero joleak eta txistulariak	X		Ez dago
2026 Musikaldia Maiatzak 23	kulturartekotasuna eta bizikidetza sustatzea	EHME	Euskal Herriko 34 musika eta dantza eskola		X (Bi urtean behin egiten delako)	Ez dago
Ikasturte amaierako jaialdia Ekainak 5	Ikasturte amaiera ospatzea	Hainbat irakasle	Eskolako dantza-, musika- eta hainbat taldeetako ikasleak	X		Jaialdiaren izaera birplanteatzea ikasgaien arteko elkarlan bultzatuz eta egungo kultura aniztasuna islatuz
San Juan bezperako “Zatoz dantzara Balda Plazara” ekitaldia Ekainak 23	San Juan bezperako antolatzen den ekitaldian parte hartzea	Dantza, txistu, trikitixa eta banda irakasleak	Dantzariak, txistulariak trikitilariak eta gazteen banda	X		Eskolako abesbatza ekitaldian parte hartzea